

1982an jaio nintzen Hondarribian, San Pedro egunean.

Soziologian lizentziatua 2004an. Bukatu gabe gelditu den doktoretza egiten hasi nintzen eta bertan identitate politiko berriak kamuflatzeko modaren erabilera aztertzea zen nire helburua, komunikazioa eta ikonologia asko interesatzen baitzaizkit.

Bide honi ekinda Patroigintza eta modan goi-mailako teknikoan (2008) eta jostintza industrialeko prozesuetan goi-mailako teknikoan (2009) titulatu nintzen.

Gaur egun Lanbide Heziketako Irakaslea naiz ehungintzako zikloetan, Donostiako Ikastetxe batean.

Cristobal Balenciagak utzitako ondarea ikastea eta zabaltzea da nere pasio haundienetako bat. Bestea, aldiz, musika. Eta Psilocybe elkartea nere kuttuna.